




HEGOALDEAK LAN EGITEN DU ERAKUSKETA

Globalizazioaren eraginak lan-munduan

ZER ARI DA GERTATZEN?

Munduko populazioaren % 20k planetako aberastasunen % 82ri ateratzen die probetxua

Nazio Batuen arabera, munduko populazioaren ehuneko 20k, 1.320 milioi lagunek alegia, haien esku dute munduko aberastasunaren ehuneko 82. Behartsuenak aldiz, mila milioi pertsona, munduko aberastasunaren ehuneko 1,4rekin bizi dira.

Munduan, egunean 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi dira 1.215 milioi pertsona. Saharaz hegoaldeko Afrikan, populazioaren ia erdia, % 48, egunean 1,25 \$ baino gutxiagorekin bizi da.

Munduko Bankua 2013 (<http://datos.bancomundial.org>)

Pertsona gehienek egiten dute lan, baina batzuek bakarrik dute egindako lanari esker bizimodu duina izateko aukera

Suspertze eta garatze bidean diren herrialdeetako hiru herrialdetatik bitan langileen % 40 baino gehiago aritzen dira ekonomia informalean lanean. Saharaz hegoaldeko Afrikan, ehuneko hori % 80koa da. Ekonomia informaleko langile horiek legearen babesetik kanpo daude; hau da, langile diren aldetik dagozkien oinarritzko eskubiderik gabe.

Nazioarteko Zentral Sindikala Arrisku-egoeran dauden herrialdeak. Sindikatu-eskubideen urraketak, 2013

Langabezia munduan

2015ean, 215 milioi lagun egongo da langabezia munduan –2013an 200 milioi– atzeraldia eta lurralde aurreratuen hazkunde

motela direla-eta. Langabezia-tasak askoz handiagoak dira egoera zailenean daudenen artean; hala nola gazteen artean. Kalkuluen arabera, 2013an 73 milioi gazte zeuden langabezia.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostena, Gazteen Enpleguaren Joerak Munduan, 2013, Belaunaldi bat arriskuan

Diru-sarreraren arteko desberdintasunak gero eta handiagoak dira mundu osoan

Lan-merkatua arautu gabe egoteak eragin ezdeusa du hazkundera, baina horrez gain, kasu gehienetan, diru-sarreraren arteko desberdintasunak areagotzen ditu.

Global Unionstaldearen adierazpena Nazioarteko Diru Funtzaren Munduko Bankuaren urteko bileretarako, 2013ko urriak 11-13.

Alemanian, enpresa handi bateko zuzendari exekutibo baten batez besteko ordainsaria ehuneko 25 baino gehiago igo zen 2007tik 2011ra. 2011n, Ameriketako Estatu Batuetan, enpresa handienetako zuzendari exekutiboek herrialde horretako batez besteko langileek baino 508 aldiz gehiago irabazi zuten batez beste.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostena munduko lanari buruz, 2013

Umeak lanean eta gatibu-lanak

Munduan, 168 milioi ume egiten dute lan. Asia eta Ozeano Bareko herrialdeetan dago ume gehien (ia 78 milioi edo umeen populazioaren % 9,3), baina Saharaz hegoaldeko Afrika da oraindik ere lan egiten duen ume gehien dagoen eremua (59 milioi, % 21etik gora).

Ia 21 milioi pertsona dira gatibu-lanen biktima: 11,4 milioi emakume eta neskatila eta 9,5 milioi gizon eta mutiko.

Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE), 2013 (www.ilo.org)



GLOBALIZAZIOAREN PARTE AL ZARA?

Begiratu zeure buruari eta inguruan duzun guztiari... **Globalizazioaren parte al zara?**

Ziur telefono mugikorra aldean daramazula.

Zer **markatakoa** da?

Nongoa da **enpresa** hori?

Zenbat **langilek** hartu dute parte zure mugikorra ekoizteko prozesuan? Zenbat herrialdeetakoak dira langile horiek?

Mugikorra saldu dizun telefono-konpainiak ba al du **lantokirik** beste herrialde batzuetan?

Lantoki horiek enpresa nagusiaren menpekoak dira edo **azpikontratatuta** daude?

Zer **lan-baldintza** dituzte langileek?

Kreditu-txartelaren bidez erosi al zenuen mugikorra? Zure banku-entitateak egiten al du lan beste **herrialde** batzuetan?

Zenbat aldiz aldatu duzu mugikorra azken bi urte hauetan? Behar bezala **birziklatu** al duzu?

Ingurumenari nola eragiten diola uste duzu?

Komunika al zaitezke **planetako** edozein tokirekin?

... Zer iruditzen zaizu orain? **Globalizazioaren parte al zara?**

Dena lotuta dago. Planeta toki txiki bat bihurtu da eta nazioarteko enpresa gutxi batzuk erraz aritzen dira bertan lanean.

Hala ere, kapitalismoak iparraldean eta hegoaldean jarrera ezberdina duenez, ikaragarritzko desoreka sortu da gure planetan; bai ekoizpenaren, bai kontsumoaren aldetik.

Zergatik da Afrika orain 1970ean baino txiroagoa?

Munduko miseriak zergatik jarraitzen du bere horretan, eta zergatik areagotu da munduko aberastasuna, nazioarteko baldintzak eta gaitasun teknologikoa inoiz baino hobeak izan arren?

Esaterako, iparraldean ekoizten dira munduko industria-produktu guztien % 81 eta iparraldeak ez du berea bakarrik kontsumitzen, baizik mundu osoan ekoizten diren metal eta egurren 2/3etik gora erabiltzen ditu, energiaren % 70 erretzen du eta mundu osoan bildutako elikagai guztien % 60 jaten ditu. Baliabide horietako asko hegoaldetik etorritakoak dira eta iparraldera desbideratzen dira, iparraldearen mesedetan, huskeria ordainduta.



“Komunikabide guztiek etengabe errepikatzen zioten jendeari formula magikoak zirela haiek, gizarteei modernitatean, garapenean, denentzako aberastasunean sartzeko atea irekiko zietela” Ignacio Ramonet



SOINEAN DARAMAGU MUNDUA

Ba al zenekien soinean daramagula mundua?

Jarri al zara inoiz pentsatzen jantzita duzun arropa bakoitza **10 herrialdetan-edo**, egina dela?

“Senegalen landatu eta landutako kotoia Pakistanen irun, Turkian bilbatu, Italian tindatu, Alemanian moztu, Tunisian josi Irlandako hari eta Txinako botoiekin, Japoniako kremailerarekin, Indonesian egindako etiketa jarri eta guk Maltako denda batean erosi.”

(Konpainia globalak, sindikatu globalak. Ehungintzako Nazioarteko Sindikatuen Federazioa, FITTVC, 2005)

Sinestezina da, baina munduan ekoizten denaren % 80 enpresa multinazionalen eskuetan dago.

Multinazionalak arautu gabeko **lan-merkatu handitzat** dute mundua eta lan-eskubideak oztopo dira hazteko. **Deskokatu** egiten dituzten lantokiak ekoizpena **planetan osoan, luze eta zabal**, zatituz.


MULTINAZIONAL BATEN EKOIZPEN KATEA

Txikizkariak eta banatzaileak, gehienak, **iparraldeko** herrialdeetakoak dira.

Haiek arduratzen dira produktuen diseinuaz, irudiaz, publizitateaz eta salmentaz. Produktuaren fabrikazioa kanpoko fabrikatzaile bati edo batzuei (hornitzaileak) kontratatzen diete.

Amaierako produktua iparraldeko herrialdeetara esportatzen da batez ere, han kontsumi dezaten.

Hegoaldeko herrialdeek ekoizten dituzte planetan kontsumitzen diren lehengai gehien-gehienak. Haien aberastasun-iturri nagusiak balioa galtzen du, ordea, egunetik egunera.



Hornitzaileek, era berean, beste enpresa hornitzaile batzuei azpikontratatzen diete ekoizpena eta haiek ekoizpenaren hainbat fase beste enpresa, tailer eta etxetik lan egiten duten langile batzuei azpikontratatzen dizkiete. **Kate handi** horretan, gero eta zailagoa da langileak zer baldintzatan ari diren jakitea. Balio erantsi txikieneko ekoizpen-faseak hegoaldeko herrialdeetan gauzatzen dira.

“... publizitatea da iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko merkataritza-prozesu hau zein bidegabe bihurtu den ikusteko adibiderik onena. Nike markak saskibaloiko izar bati diru gehiago ordaintzen dio urtean publizitatea egiteagatik, Indonesian dituen langile guztiei baino. Gauza bera egiten dute Reebok, Coca Cola eta beste marka ugari ere...”

Ba al dakizu nola banatzen den kiroletako oinetakoen etekina?

“Ergel guztiek nahasten dituzte balioa eta prezioa”
Antonio Machado



Garraioa	% 3	
Txikizkariak	% 50	
Hornitzaileak	% 12	
Langileak	% 2	
Markaren jabea	% 33	



NORK JARTZEN DITU JOKOAREN ARAUAK?

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, munduko egoera ekonomikoa kaotikoa zen erabat eta **Nazioarteko Finantza Erakunde** handiak sortu zituzten ekonomiari azkar suspertzen laguntzeko:

Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

Diru-ordena berria ezartzea eta sistemaren krisia ekiditea zituen egitekoak, herrialdeak politika ekonomikorako oinarri oneko neurriak hartzera sustatuz.

Munduko Bankua (MB)

Garapen ekonomikorako eta pobrezia murrizteko sustapen-lanak egitea zuen egitekoa, epe luzerako tokiko proiektuak finantzatzearen bidez.

Berlingo harresia erortzearekin batera, merkataritza libreari ateak zabaldu zitzaizkion. **Munduko Merkataritza Erakundea (MME)** sortu zen eta hori da mundu osoan merkataritzaren korronteak ahalik eta arinen eta askeen zirkulatzen dutela bermatzen duen nazioarteko erakunde bakarra.

NDF, MB eta MME dira **globalizazio ekonomikoaren ardatz nagusia**. Horiek jartzen dituzte mundu osoan nagusi diren ekonomiari eta merkataritzari lotutako politiken arauak eta horiek inposatzen dizkiete herrialdeei hainbat baldintza, helburuetan ezarritakoaren aurka, honako ondorio hauek dituztenak:

- **Pribatizazioa** zerbitzu publikoetan eta murrizketak gastu sozialean –hezkuntza eta osasuna–
- **Aduana-zergarik gabeko eremuak ugaritzea**, atzerriko inbertsio pribatuatarako
- Enplegua **ezegonkortzea**: langileak babesten dituzten legeak kentzearen alde egiten da
- **Merkataritzaren arloan** herrialde aberastuen **alde egitea...**

... laburbilduz, **POBRETZEA**

Hiru erakunde horiek iparraldean dituzte egoitzak eta munduko ia herrialde guztiek osatzen dituzte. NDF eta MB erakundeetan, erabakitzeke boterea kide den herrialde bakoitzak ordaintzen dituen **ordainketa-kuoten** edo akzioen arabera neurtzen da. Hala, eragin handiena duten bost herrialdeak hauek dira: **AEB, Japonia, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua**.

Zer lortu nahi dugu?

- Erakunde horiek **erreformatzea eta demokratizatzea**
- Lanaren oinarritzko arauak (**LOA**) errespetatzea eta betetzea berma dezatela
- **Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE)** behatzaile izendatzea
- Pobretutako herrialdeen kanpo **zorra bertan behera uztea**



ETA ZER DA LAN DUINA?

Pertsona orok du lanerako eskubidea, lana aske aukeratzekoa, lanean baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa eta langabeziaren aurka babesa jasotzekoa.

Pertsona orok du lan berdinen ordainetan soldata berdina jasotzeko eskubidea, bazterkeriarik jasan gabe.

Lan egiten duen pertsona orok du ordainsari bidezkoa eta egokia jasotzeko eskubidea, langileari eta haren familiari duintasunez bizitzeko modua emango diona eta, behar izanez gero, babes sozialerako bestelako baliabideekin osatuko dena.

Pertsona orok du haren interesak defendatzeko xedez sindikatuak sortzeko eta sindikatzeko eskubidea.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 23. artikulua.

Lan duina... gizon-emakumeentzako emankorra da, duintasunez bizitzeko aukera ematen du eta askatasunez, zuzentasunez, segurtasunez eta duintasunez aukeratu eta garatzen da (LANE).

Lan duina izateak lan emankorrerako aukerak eta horri dagokion **bidezko diru-sarrera** izatea dakar. Horrez gain, lantokian **segurtasuna** ematen du eta **babesa** langileei eta haien familiei. **Garapen** pertsonalerako aukera hobeak eskaintzen ditu eta **gizarteratzea** sustatzen du, baita pertsonen iritzia emateko, antolatze eta haien bizitzari eragiten dioten erabakietan **parte hartzeko askatasuna** eman ere. Aukeretan eta tratuan denentzako **berdintasuna** ere bermatzen ditu.

Hala ere, lan bat duintzat hartzeko, **Lanaren Oinarrizko Arauak (LOA)** betetzeari lotutako gutxienerako muga bat dago ezarrita.

ETA ZER DA BA LOA HORI?

Lanaren Oinarrizko Arauak 1998an **Lanaren Nazioarteko Erakundeak** ezarritako **zortzi hitzarmen** dira. Hitzarmen horietan daude jasota lana duina izateko funtsezkotzat hartzen diren hainbat printzipio eta eskubide. LANEko kide diren estatu guztiek **nahitaez bete** behar dituzte eta haien lege nazionaletan txertatu behar dituzte; baita berresten ez badituzte ere.



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES
Y DE COOPERACIÓN



ETA ZER DA LAN DUINA?

ETA ZEIN DIRA HITZARMEN HORIEK?

87 **Sindikatu-askatasunari eta sindikatzeko eskubidea babesteari** buruzkoa.

98 **Sindikatzeko eta negoziazio kolektiborako eskubideari** buruzkoa.

BA AL ZENEKIN...

... langile batzuek, sindikatu-eskubideak babesteagatik bizia gal dezakete. 2011n, gutxienez 76 langile hil ziren egin zituzten sindikatu-jardueren zuzeneko ondorio gisa. Horiei gehitu behar zaizkie Udaberri Arabiarraren harira egindako protestetako errepresioaren ondorioz bizia galdu zutenak. Latinoamerika bakarrik kontuan hartuta, 56 hilketa hil ziren; horietatik 29 Kolonbian eta beste 10 Guatemalan. Erabateko inpunitatez eginiko krimenak izan ziren.

29 **Gatibu-lanari** buruzkoa.

105 **Gatibu-lana ezeztatzeari** buruzkoa.

BA AL ZENEKIN...

oraindik ere badira **XXI. mendean esklabotza** egoeran bizi diren pertsonak. Mundu osoan, edozein unetan, gutxienez 21 milioi ari dira gatibu-lanetan Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, gatibu-lanen biktima gehienak pobrezia-egoeran bizi dira.

ETA ORAIN PENTSATU. ZURE USTEZ ZER DA LAN DUINA?

Pobreziatik ateratzeko biderik onena da lan duina. Eskubideak eta babes soziala bermatuko dituen lanaren alde borroka egitea, denok **etorkizuna** izateko bermea da.

Laneko esplotazioa **EZ** da lan egokia izatea. Eskubideak aldarrikatzeko beldur izatea **EZ** da lan egokia izatea.

Munduan lan duina defendatu behar dela uste baduzu, **EGIN ZERBAIT!**

100 **Ordainsari-berdintasunari** buruzkoa

111 **Enpleguan eta lanbidean baztertzeari** buruzkoa

BA AL ZENEKIN...

... enpresa garrantzitsu bateko langileen kudeatzailearen arabera, honako ezaugarri hauek izan behar ditu emakume langile batek:

“Nire ustez, emakume langile ideala gaztea da (18-24 urte), ezkongabea, osasuntsua, argala eta fina, lantokitik hurbil bizi da eta aurretik ez du esperientziarik”

Giza Eskubideen Behatokiaren “Guatemala, etxetik fabrikara” txostena.

138 **Gutxieneko adinari** buruzkoa

182 **Ume langileen formarik okerrenei** buruzkoa

BA AL ZENEKIN...

ez da munduan gustuz edo aberastasuna pilatzeagatik lan egiten duen neska-mutilik. Umeek lan egitearen arrazoi nagusiak haien herrialdean lanerako gutxieneko adina lege ezarrita ez egotea, esku-lan merkea, malgua, esanekoa, beldurtia, otzana izatea eta dagokien eskubiderik ez aldarrikatzea dira eta horregatik, gutxiago ordaintzen zaie; batzuetan ezer ez.



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES
Y DE COOPERACIÓN



aecid

ZER DAKIZU NAZIOARTEKO SINDIKATU MUGIMENDUARI BURUZ?

Nazioarteko sindikalismoa askotariko mugimendua da, aberatsa eta eraginkorra. Sindikatu bateko kide egitean, nazioarteko sindikalismoaren parte bihurtzen da.

Nazioarteko sareetako sindikatu-antolakundeak **zure lan-eskubideak** defendatzearekin lotutako gai nagusiei **erantzuten** die eskubide horiek falta diren tokietan eta lantokian injustizia, bazterkeria eta esplotazioa dagoen egoeren aurka borroka egiten du.

GLOBAL UNIONS Honako erakunde hauek biltzen ditu: Nazioarteko Sindikatu Konfederazioa (NSK), TUAC Sindikatuen Aholku Batzordea Ekonomia Lankidetzan eta Garapenerako Antolakundearen aurrean eta Nazioarteko Sindikatu Federazioak (NSF).

Nazioarteko Sindikatu Konfederazioa (NSK) da nazioarteko sindikatu-erakunde nagusia eta mundu osoko langileen interesak ordezkatzeko ditu. 156 herrialde eta lurraldetako 315 erakunde ditu afiliatuta; guztira 175 milioi langile.

Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK) Europako sindikatu-mugimendua ordezkatzeko du.

NAZIOARTEKO SINDIKATU FEDERAZIOAK (NSF). Sektore, industria edo lanbide jakinetako langileak ordezkatzeko dituzte.

8 nazioarteko federazio daude. **Zein dagokizu zuri?**



IndustriALL

Meatzaritza, energiaren eta industriaren sektoreko langileak



ITF

Garraioaren sektoreko langileak



ISP

Zerbitzu publikoetako langileak



UNI

Posta-zerbitzuetako, telekomunikazioetako, merkataritzako, zerbitzu administratibo profesional eta teknikoetako langileak



UITA

Elikaduran, nekazaritzan, hoteletan, jatetxeetan, tabako eta antzekoetan aritzen diren langileak



FITCM

Eraikuntzako eta egur-lanetako langileak



FIP

Kazetaritzako langileak



IE

Hezkuntzako langileak

Geldiezina dirudien prozesu bat geldiaraztea da sindikatu-mugimenduaren **erronka: desberdintasun sozialak** eta herritar guztien **lan-eskubideen** arloko murrizketak areagotzen ari den prozesua, hain zuzen.

Sindikatu-mugimenduak ahots bakarra izatea elementu estrategikoa da desberdintasunak gaitzeko; izan ere, kapitalak ez du mugarik, enpresak nahi duten tokian aske ezartzen dira eta giza eskubide oinarritzaren ez daude bermatuta.

Oso zeregin garrantzitsua du mugimendu horrek **gure interesak** ordezkatzeko baititu enpresa multinazionalen egiten diren legezko akordioak negoziatzean eta gainbegiratzean eta nazioarteko erakunde ekonomikoen aurrean, oro har giza eskubideekin eta batez ere lan-eskubideekin lotutako gaietan. Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa dira erakunde horietako bi.

Urriak 7

Lan duinaren aldeko nazioarteko jardunaldia

Sindikatu Nazioarteko Biltzarrak sustatutakoa da eta aurrekaririk gabeko aukera da sindikatu-mugimenduak eta mundu osoan **lan duina** sustatzeko interesa duten beste erakunde batzuek **indarrak batu eta hedadura handiko mobilizazio global** bat osa dezaten, pertsona kopuru handia eta askotariko jarduerak bilduz.

Probetxuzko jardunaldia globalizazio berri bat izatearen premiari buruz arreta pizteko. **Hartu parte!**



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES
Y DE COOPERACIÓN



aecid

ZER EGIN DEZAKET NIK?

Garbi dago gure munduak **aldatu** egin behar duela eta gutako bakoitzak hautsi behar duela axolagabetasuna.

Arduragabekeriaren egoismoaren gainean eraikitako munduan bizi gara. Ekintzen eta elkartasunaren bidez, beste harreman batzuk, beste konpromiso eta irtenbide batzuk eska ditzakegu, baina batez ere, **parte hartu** dezakegu eta hala egin behar dugu. Parte ez hartzea aukeratzeko aukera ez erabiltzea da, isiltasuna onartzea. Ekintzek, aldiz, ateak zabaltzen dituzte.

Etorkizun hobe baten alde. Denentzat bidezkoagoa den mundu baten alde.

HARTU ETA EMAN INFORMAZIOA

HARTU PARTE

AZALDU ELKARTASUNA

MOBILIZATU

HARPIDETU OTGren webgunean

Bakea eta elkartasuna Euskadiko ERkidegoko CCOO sindikatuaren GGKEa da.

Gizartea eta ekonomia eraldatu eta giza garapen iraunkorreranzko bidea egiteko egiten dugu lan, gizarte justu eta bidezkoa eraikitzeko helburuarekin. Horretarako, oinarria hegoaldean duten sindikatu- eta gizarte-erakundeei laguntza eta babesa ematen diegu haien garapen-proiektuetan.

Gaur eta beti, egin zerbait.

BAINA... ZERGATIK EGIN BEHAR DUZU ZERBAIT?

Dugun globalizazio-eredu honekin mundu osoko langileen lan-baldintzak okertzen ari direlako.

Egoera okerrenean daudenengatik ezer ez egitea **EZ** delako neutrala izatea, egoera bidegabeen konplize izatea baizik.

Mundu global honetan, hegoaldeko herrialdeetako laneko injustizia egoerek guztioi **eragiten digutelako**.



www.observatoriodeltrabajo.org



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad


Era berean, gizartean eta lanean hausnarketa kritikoa ere sustatzen dugu gizarte zibila konprometitua izan dadin eta nagusi den globalizazio neoliberalaren eredua zalantzan jarri eta haren aurrean zerbait egin dezan.

CCOO Euskadi erakundeak afiliazio-kuota guztien % 0,7 gure jarduerak finantzatzeko erabiltzen du.

GARRANTZITSUA DA ZUK PARTE HARTZEA.

GUREKIN IZANGO ZAITUGULAKOAN GAUDE...

Finantzatzailea:



“Erakusketa hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin dugu, “Eragin diezaiozun elkarri. Valentziako Erkidegoan, Katalunian eta Euskadin lehen eta bigarren hezkuntzarako eta lanbide heziketarako garapenerako hezkuntza-proiektua” proiektuaren baitan. Argitalpen horren erantzukizun eskusiboa Fundació Pau i Solidaritat PV fundazioak du eta ez du zertan AECIDen iritzia islatu”.

Egilea: **Bakea eta Elkartasuna, Andaluzia.**

Koordinazioa: **Libertad Soto Machuca**

Erredakzioa: **Ana Belén Benítez, Iratxe Diego eta Libertad Soto**

Argazkiak: **Alfonso Martínez Foronda, CCOO-Aren Komunikaziorako Idazkaritza, CCOO PV, José María Rodríguez Ramírez, Bakea eta Elkartasuna Andaluzia, Herri Garapenerako Elkartea (Asociación de Desarrollo Comunal).**

Fundació Pau i Solidaritat PV fundazioak berrikusia eta eguneratua 2013ko abenduan argitaratzeko.



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES
Y DE COOPERACIÓN

